



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

43. INFORMAZIO BULETINA

> 2010eko Martxoa

GIPUZKOA





NABARMENDU BEHARREKOA

> Europa 2020ren lehentasunezko helburuak

Martxoaren 25eko Europako Kontseiluak Europa 2020 Estrategiaren elementu nagusien inguruko akordioa adostu zuen, estrategia aplikatzea bideratuko duten oinarriko helburuak eta akordioak barne, hobe gainbegiratu daitezten.

Hauek dira adostutako lehentasunezko helburuak:

- 20 eta 64 urte bitarteko gizon eta emakumeen enplegu-tasa % 75era arte handitzea; gazteen, adin nagusiko langileen eta kualifikazio gutxiagoko langileen parte-hartzea handiagoa izango da eta legezko migratzaileen integrazioa hobetuko da;
- ikerketa eta garapenaren baldintzak hobetzea, bereziki sektore honetako inbertsio publiko eta pribatuaren maila konbinatuak BPGaren % 3ra arte igotzeko helburuarekin; Batzordeak I+G-aren eta berrikuntzaren intentsitatea islatzen duen adierazlea landuko du;
- 1990eko mailak kontuan hartuta, berotegi-efektuko gas-isurtzeak % 20 murriztea; energia berriztagarrien proportzioa % 20ra arte handitzea energiaren azken kontsumoan; eta energiaren errendimenduan % 20ra igotzeko bidean aurrera egitea; 1990eko mailekin alderatuta, 2020 urterako % 30eko murrizketa lortzeko bidean aurrera egitea erabakitzeak konpromisoa hartu du EBk.
- hezkuntza-mailak hobetzea, bereziki eskola uzten dutenen kopurua murriztu dadin eta goi-mailako edo antzeko ikasketak bukatzen dituzten pertsonen kopurua areagotu dadin.
- gizarteratzea bultzatzea, bereziki pobrezia murriztuz.


Estatu kideek helburu orokor hauek nazio-mailako helburu bilakatu behar dituzte, Batzordearekin lan eginez, eta erreformak egiteko nazio-mailako programak landuko dituzte. Programa horietan estrategia berria aplikatzeko abian jarriko dituzten neurriak zehaztuko dituzte, eta indar berezia jarriko dute nazio-mailako helburuak betetzeko beharrezkoak diren jardueretan eta nazio-mailako hazkundera mantsotzen duten estuguneak ezabatzeko neurrietan.

Europako Kontseiluak, aldizka, ekonomiaren bilakaerari eta strategiaren lehentasun nagusiei buruzko eztabaidak egingo ditu. 2010eko urrian, ikerketa eta garapenaren gaia aztertuko du, eta egungo erronken aurrean, bereziki EBk berrikuntzarako duen indarra sustatzeko moduan oinarrituko da.

2011 urte hasieran energia-politikari ekingo dio, eta halaber, politika horrek eraginkorra eta karbono-isurtze baxuak dituen ekonomia baterantz eta hornikuntzan segurtasun handiagorantz lagun dezan bide egokiena zein den eztabaidatuko du.

Informazio gehiago (gaztelera):

http://www.consilium.europa.eu/uedocs/cms_data/docs/pressdata/es/ec/113613.pdf



- > Berrikuntzari dagokionez, emaitzak hobetu behar ditu Europak eta Euskadi eta Gipuzkoa berrikuntza maila altua duten lurraldeak dira

2009ko Europako Berrikuntza Indizeak (EBI) adierazten du ekonomia-krisia mugatzen ari dela Europar Batasunak berrikuntzaren alorrean aurrera egitea eta atzeraldiaren eragin handiena jasan duten estatuek emaitza txarrenak dituzte.

Indizea hiru kategoriatan sailkatutako 29 adierazlez osatzen da: bideratzaileak (bitartekoak), enpresa-jarduera eta emaitzak (produktibitateak).

Adierazle hauek kontuan hartuta, Europar Batasuneko herrialdeak lau kategoriatan bil daitezke: liderrak/nagusiak (Suedia, Finlandia, Alemania, Erresuma Batua eta Danimarka), berrikuntza altukoak/jarraitzaileak, neurrizko berrikuntza dutenak eta berrikuntza baxukoak.

Euskal Herria eta Gipuzkoa berrikuntza altuko taldean egongo lirateke, hain zuzen ere, Austria, Luxenburgo, Belgika, Irlanda, Holanda, Estonia, Zipre eta Esloveniarekin batera. Egoera hau bereziki hezkuntza-maila altua duten pertsonen erabilgarritasunetik sortzen da.

Informazio gehiago:

(ingeleza): <http://www.proinno-europe.eu/page/european-innovation-scoreboard-2009>

(euskeraz):

http://www.eustat.es/ci_ci/indicadores/idioma_e/indictipo_2/ambito_99/temaseleccionado_45/indicadores.html



KOHESIO-POLITIKA

> Kohesio-politika: 2010eko txosten estrategikoa

Batzordearen "Kohesio-politika: 2010eko txosten estrategikoa 2007-2013 programen aplikazioari buruz" izeneko txostenak Europako kohesio-politikaren aplikazioaren lehen ebaluazioa jasotzen du.

Txostenaren arabera, azken hiru urteotan Batasunak 93.000 milioi euro finantzatu ditu enpleguaren eta hazkundearen alorreko inbertsio-proiektuetarako. Zenbateko honek Europar Batasuneko funts erabilgarrien % 27a adierazten du.

Halaber, enplegua eta hazkundera sustatzeari dagokionez Batasunaren helburu orokorreko dagoen adostasun-maila aztertzen du txostenak, eta kohesio-programen lorpen eta erronken inguruko eztabaida irekia sustatzen du.

Txosten horretan programen betearazpena hobetu dezaten eskatzen zaie estatu kideei, modu horretan kohesio-politikaren esparruan erabilgarri dauden finantza-baliabideak ahalik eta hobekien erabili daitezkeen, esaterako, tren-sektorean, energia eta ingurumen alorreko funtsezko proiektuetan eta gizarteratzearen esparruan. Halaber, proiektuen berrogei adibide jasotzen dituen sailkapen adierazgarria jasotzen du, inbertsiorako lehentasunen esparru zabala irudikatzeko xedearekin.

Informazio gehiago (gaztelera):

http://ec.europa.eu/regional_policy/policy/reporting/cs_reports_en.htm

> Eskualdeko politikaren ebaluazioa: Ikuspegiak eta emaitzak

Eskualdeko Politikako Zuzendaritza Nagusiaren Panorama aldizkariak eskualde-erkidegoko politiken emaitzak eta ikuspegiak aztertzen ditu udaberriko alean.

Besteak beste, ondorengo galderak erantzuten saiatzen da: Zeintzuk dira 2000-2006 kohesio-politikaren emaitzak? Zein ebaluazio-metodo erabili behar dira?.

Kohesio-politikaren ebaluazioak politika bera indartzen lagundu duela azpimarratzen du eta 2000-2006 programazio-aldiaren alderdi positiboak eta negatiboak aztertzen ditu.

Informazio gehiago (gaztelera):

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/panora_es.htm



> “Eskualdeak, aldaketa ekonomikoaren jokalariak” hitzaldia


«Eskualdeak, aldaketa ekonomikoaren jokalariak» 2010 hitzaldia Bruselan egingo da maiatzaren 20 eta 21ean.

«Eskualdeak, aldaketa ekonomikoaren jokalariak, hazkunde jasangarria eraikitzen» lelopean egingo den hitzaldiak ondorengo hiru gai nagusiak landuko ditu: energia jasangarria; IKT soluzio jasangarriak, eta nola lortu Europako hiriak berdeagoak izatea.

Hitzaldiaren baitan goi-mailako ekitaldi politikoa izango da, eta bertan, hizlari, politikari eta profesional ospetsuek EB 2020 esparru berrian Europako kohesio-politikaren etorkizunari buruz eztabaidatuko dute.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/conferences/sustainable-growth/registration_en.cfm?nmenu=5



KOMUNITATEKO POLITIKAK

> Munduko estrategia klima-aldaketaren aurrean

Batzordearen Jakinarazpenak klima-aldaketaren aurkako borrokan nazioarteko ahaleginen bultzada mantentzen laguntzeko estrategia aurkeztu du.


Atzerapenik gabe, Batasuna joan den abenduan adostutako Kopenhageko Hitzarmena aplikatzen hasia da, bereziki garapenerako bidean dauden herrialdeei hasierako finantza-laguntza azkarra. Aldi berean, nazioarteko akordio sendo eta juridikoki loteslea erdiesteko presioa egiten jarraitu behar du Batasunak, klimaren aldeko ekimen handi batean herrialde guztiak parte hartzera bultzatuko dituen.

Batzordearen aburuz, Batasunak buruzagitzarako duen gaitasuna erakutsi behar du, klima gehien errespetatzen duen munduko lurraldean bilaka dadin neurri zehatzak aplikatuz, Europa 2020 Estrategiaren baitan. 1990eko mailak kontuan hartuta, hemendik 2020 urtera isurtzeak % 20 murrizteko eta beste ekonomia garrantzitsu batzuk munduaren ahaleginari modu zuzenean laguntzea adosten badute, zenbateko hori % 30era arte handitzeko konpromisoa hartu du.

Ekaineko Europako Kontseiluari begira, isurtzeak % 30era murrizteko beharrezkoak diren politika zehatzen azterketa prestatuko du Batzordeak. Aurrerago, 2050a baino lehen karbono-isurtze baxuko ekonomian bilakatu ahal izateko Batasunak jarraitu beharreko bidea definituko du. Europa 2020 Estrategiarekin bat etorritik, klima-aldaketarentzat eta energiaren segurtasun eta enpleguaren sorkuntzarentzat onuragarriak izango diren soluzio inteligenteak ematea da xedea.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2010:0086:FIN:ES:PDF>



> Gizon eta emakumeen arteko berdintasunarekiko konpromiso indartua

Emakumeari buruz Pekinen egindako Nazio Batuen Munduko Konferentziaren 15. urteurrenaren harira, Europako Batzordeak gizon eta emakumeen arteko berdintasuna egi bilakatzeko konpromisoa berresten eta indartzen duen adierazpena egin du. Politika guztietan generoaren ikuspegia bultzatzea eta berdintasun hori sustatzeko neurri bereziak hartzea eta horretarako baliabideak jartzea izango dira abiapuntuak.

Europako Batzordearen agindu honen ekintzak, gizon eta emakumeen arteko ondorengo berdintasun-printzipioetan oinarrituko dira: independentzia ekonomiko berdina, lan bera egiteagatik soldata berdina eta balio bera duen lana, berdintasuna erabakiak hartzeko orduan, duintasuna, segurtasuna eta indarkeria sexistaren bukaera, eta gizon eta emakumeen arteko berdintasuna Batasuneko mugetatik haratago.

Testuinguru honetan, Europako Batzordeak kanpaina bat sustatu du gizon eta emakumeen ordainketa-desberdintasunen aurrean. Horrela, emakume europarrek gizonek baino % 18 gutxiago irabazten dute Europan, eta herrialde batzuetan gizon eta emakumeen arteko soldata desberdintasunak areagotzen ari dira. Halaber, gizon eta emakumeen arteko soldata desberdintasunek eragin handia dute emakumeen bizitza osoan zeharreko diru-sarreretan eta pentsioetan. Hau da, soldata baxuagoa izateak pentsio baxuagoa izatea dakar, eta horrek pobrezia-arrisku handiagoa sortzen du emakume helduengan.

Egoera honen aurrean, Europako Batzordeak gizon eta emakumeen arteko soldata desberdintasunei buruzko informazio-kanpaina abiatu du Batasuneko herrialde guztietan. Kanpainaren hainbat komunikazio-tresna on line eskuragarri daude (liburuxkak, kartelak, PowerPoint aurkezpenak, bideoklipak).

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2010:0078:FIN:ES:PDF>

<http://ec.europa.eu/social/main.jsp?catId=681&langId=es>



> Europar Batasunaren 2009ko jarduerari buruzko Txosten Orokorra


Europar Batasunari buruzko 2009ko txosten orokorrak krisiaren aurkako borrokan abiatutako ekintzak eta lortutako emaitzak jasotzen ditu. Hitzazurrean jasotzen denez, Europar Batasuna hogeita zazpi herrialde demokratikoz osatutako eta ia bostehun milioi biztanle dituen erkidego aberats eta egonkorra da, eta munduko barne produktu gordinaren % 30a baino gehiago eta merkataritzaren % 17a duen munduko ekonomia integratua duen gune handiena da. Beraz, hori kontuan hartuta, erronka horiei aurre egiteko aukera ugari balia ditzake.

Txostena bost ataletan egituratzen da, eta lehenengoan, krisiaren susperraldiaz hitz egiten da. Bertan, berehalako arazoaren erantzunak, finantza-sistema indartsuago bat eraikitzea eta hazkunde jasangarri bat berrezartzeari buruz ari da.

Gainerako atalak honela adierazten dira: Klima-aldaketari aurre egitea eta energia aurrezte, Europar Batasuna munduan, Europar Batasun eraginkorragoa eta demokratikoa eta Hobekuntza gehiago biztanle europarentzat.

Informazio gehiago:

http://europa.eu/generalreport/es/2009/files/rg2009_es.pdf



e-LIBURUTEGIA

> Goi-mailako hezkuntza Europa 2010ean

"Goi-mailako hezkuntza Europa 2010ean: Bolognako prozesuaren eragina" izeneko txostenak jasotzen duenaren arabera, Bolognako prozesuan parte hartzen duten 46 herrialdeek oraindik arazoak dituzte irakaskuntzaren modernizazio-prozesuari dagokionez, Europako goi-mailako irakaskuntzaren erreforma-eredu honi ekin zitzaionetik hamaika urte pasatu ondoren.

Hala ere, Eurydice sareak Europako Batzordearentzat egindako txostenak dio prozesuaren helburu nagusiak erdietsi direla, alegia, hiru zikloko (lizentziatura, masterra, doktoretza) ikasketa-sistema ezartzea eta kalitatea bermatzea, nahiz eta tituluen aitopenek eta ikasketa-aldiek oraindik arazoak sortu.

Informazio gehiago (ingelesez):

http://eacea.ec.europa.eu/education/eurydice/documents/thematic_reports/122EN.pdf

> Krisiaren eragin soziala: herritarren pertzepzioa

Europako Batzordearen Eurobarometroak krisiaren eragin sozialari buruzko txostena landu du, herritarrei egindako inkestan oinarrituta.

Herritarren erdiak baino gehiagok (% 54) uste du 2009an pobrezia areagotu egin zela Europan, bere herrialdean (% 76) eta bere eskualdean (% 61).

Herrialdeko pobrezia igoera Letonian, Frantzia eta Portugalen sumatu dute gehien (azken hamabi hilabeteotan), izan ere, herrialde horietako biztanleen % 90ak baino gehiago dio pobrezia handitu egin dela. Kontrako muturrean daude Txekiar Errepublikak, Polonia eta Erresuma Batua, % 60 baino portzentaje txikiagoarekin.

Bestalde, Europako herritarren % 20ak arazoak ditu fakturak edo eguneroko gastuak ordaintzeko, eta % 30ak, berriz, mediku-gastuak ordaintzeko. Azkenik, galdetutako pertsonen % 77ak bere enplegua mantendu dezakeela uste du, eta kaleratuz gero, soilik % 45ak uste du berehala aurkituko lukeela lanpostu berri bat.

Informazio gehiago (ingelesez):

http://ec.europa.eu/public_opinion/flash/fl_286_en.pdf




> Emakume zuzendari gehiago: ekonomiaren egonkortasun eta hazkundeari begira funtsezkoa

Batzordearen txostenak baieztatzen duenez, egungo finantza-krisiak agerian uzten du Europan ekonomiaren inguruko erabakiak hartzen dituzten emakumeen kopurua urria dela. Bankuetan, negozio-enpresetan eta administrazio publikoetan goi-mailako karguei dagokienez gizonen kopurua nabarmen handiagoa da, nahiz eta unibertsitateko tituludunen artean eta lan-merkatuan emakumeen kopurua handitu den. Esaterako, burtsan kotizatzen duten enpresa europar handien administrazio kontseiluetan, soilik hamarretik bat emakumea da; EBko herrialdeetako banku nagusien agintari guztiak, berriz, gizonezkoak dira.

Gizon eta emakumeen arteko oreka enpresentzat errentagarria dela eta ardura eskatzen duten postuak betetzen dituzten emakumeen proportzioaren eta enpresa-emitzen arteko korrelazioa positiboa dela jasotzen da.

Informazio gehiago (ingelesez):

<http://ec.europa.eu/social/main.jsp?catId=762&langId=en&furtherPubs=yes>



ADIERAZLEAK

> Europako eta Euskal Herriko ekonomiaren susperraldia ahula da oraindik

Europako Batzordearen aurreikuspen ekonomikoen arabera, 2010ean BPG % 0,7 igoko da Batasunean. Aurreikuspen hauen aurrean zalantza asko daude, finantza-merkatuen orain dela gutxiko bilakaerak erakusten duen moduan.

Ekonomia europarra suspertzen ari den arren, oztopo asko ditu aurrean eta finantza-merkatuetan ziurgabetasunak bere horretan jarraitzen du, oraindik gainbeheran egoteko arriskuan baitaude. Alderdi positiboari begiratuta, mundu mailan susperraldiaren indarra nabarmentzen da, bereziki azaleratzen ari diren Asiako merkatuetan.

Espero zena baino susperraldi handiagoa izan zuen Batasunak 2009ko bigarren seihilekoan. Munduko ekonomiaren egoerak pozgarria izaten jarraitzen du, 2010ean % 4,25 haztea aurreikusten baita (Europar Batasuna barne hartu gabe).

Ingurunearen egoera aldekoa izanda ere, 2010ean Batasunaren hazkundeak hainbat faktoreren mehatxua du, hala nola, estatu kide batzuen higiezin merkatuen ahultasuna, industria-produkzioaren jaitsiera edo txikizkako salmenten gainbehera. Bestalde, finantza-merkatuen aukerak ez dira batere ziurrak, nahiz eta 2009ko hasieran igoera nabarmenak izan, eta langabezia-tasek kontsumoa mantsotu dezakeen goranzko joera adierazten dute.

2010ean euskal ekonomia % 0,5 eta 2011n % 1,8 haztea aurreikusten da, baina ez da enpleguaren joera positiborik aurreikusten hurrengo urteko hasierara arte.

Informazio gehiago:

(gazteleraz):

<http://europa.eu/rapid/pressReleasesAction.do?reference=IP/10/188&format=HTML&aged=0&language=ES&guiLanguage=en>

(euskaraz): [http://www.ogasun.ejgv.euskadi.net/r51-](http://www.ogasun.ejgv.euskadi.net/r51-19416/eu/contenidos/informacion/menu_dep/eu_previs/previsiones.html)

[19416/eu/contenidos/informacion/menu_dep/eu_previs/previsiones.html](http://www.ogasun.ejgv.euskadi.net/r51-19416/eu/contenidos/informacion/menu_dep/eu_previs/previsiones.html)



> Lan-merkatuaren estatistikak

Eurostatek landutako laburpen-agiri honek Batasunaren eta bere estatu kideen lan-merkatuarekin lotutako hainbat estatistika eta adierazle jasotzen ditu.

Pertsonen eta familien egoera jasotzen du, lan-esparruari, euren diru-sarrerei eta eskulanaren kostuei, nola enplegu-eskariari eta enplegu-politikei dagokienez.

Informazio gehiago (ingelese):

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/portal/page/portal/product_details/publication?p_product_code=KS-30-09-149-EN-C